

**EAEko IRAKASLEAK****LEKUALDATZE-LEHIAKETA**

Aurtengo deialdia: Urriak 17- azaroak 7, estatu mailan.

**Aldaketa garrantzitsua:** Madrilgo Auzitegi Gorenak emandako sententzia batek prozesuaren merezimenduetan aldaketak eragingo ditu. Deialdiak aldaketa horiek jasoko ditu:

- Praktikaldia eta ordezeko gisa egindako lana puntuatuko da (norberaren kidegoan).
- Karrerako funtzionarioa izan aurretik, karguetan jardundako lana ere kontuan hartuko da.

(Puntuazio berri hau baxuagoa izango omen da)

Laster antolatuko ditugun LAL-ri buruzko hitzaldien datak helaraziko dizkizuegu.

**LEKUALDATZE-LEHIAKETA BEREZIA (plaza singularrak):**

Hurrengo ikasturtean izango da.

**MAISU-MAISTREN KIDEGOKO ESPEZIALITATEAK ESKURATZEA**

Espezialitateak aitortzeko prozesuaren barruan informazio-oharra argitaratu dute [Hezkuntza web orrian](#). Salbuespen gisa gaitu da eskatzen den espezialitatearen titulua edo ziurtagiria zuzenean eskabidean eransteko aukera.

**EPE 2022. IRAKASLEEN MEREZIMENDU-LEHIAKETA**

Deialdian huts-zuzenketa egin da, [hemen](#).

**EAEKO IRAKASLEAK ETA HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK****IRALE**

Irakastordu barneko ikastaroetarako (3000, 4000, 5000) onartuen behin-behineko zerrendak. Informazio gehiago [hezkuntzako webgunean](#).

**Erreklamazio epea:** urriak 7-13 (biak barne).

**URRIAK 12, EZ DUGU EZER OSPATZEKO!!!**